

Liburutegien Eguna eta Mediatekaren urteurrena, Bilboko Alondegian

Urriaren 24an, Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatzen da. Bilboko Alondegian, gainera, bertako Mediatekaren lehenengo urteurrena ere ospatzen dute. Pelikulak, musika eta liburuak maileguan uzteaz gain, Interneten ibiltzeko aukera, ikasketarako guneak eta prentsa irakurtzeko aukera eskaintzen ditu Mediatekak. Ikus-entzunezko materialaz gozatzeko aukera ere badago bertan.

Lehen urteurren honetan, 'Mediateka, Atik Zra' izeneko argitalpena kaleratu dute. Espazioaren eta bertako zerbitzuen inguruan Mediatekako erabiltzaileek egindako ilustrazioak bildu dituzte bertan. Guztira 24 lan daude, aurkeztutako 212 marrazkien artean aukeratutakoak.

Era berean, eta urteurrenaren ospakizunekin lotuta, harri-kartoian egindako pertsonaia ezagunen tamaina handiko irudiak jarri dituzte Alondegian, bisitariak pertsonaia horiekin argazkiak atera ditzaten.

Alondegiko Mediateka, zenbakitan

60.000 ale daude eskuragai Bilboko Alondegiko Mediatekako bilduman. Azken urte honetan 640.000 erabiltzaile hartu ditu espazioak (lanegunetan 1.700 bisita izan ditu batez beste; eta, asteburuetan, 2.000 erabiltzaile egunean). Guztira 330.208 mailegu egin dituzte (irudia, soinua, literatura eta komikia utzi dute maileguan), eta horietatik % 85 pertsona helduen eskariak izan dira.

Interneteko erabilerari dagokionez, guztira 180.000 saio izan dira azken 12 hilabeteotan. Gunearen arduradunaren esanetan, ikus-entzunezko baliabideak eta teknologia berriak dira erabiltzaileek gehien eskatzen dituzten zerbitzuak. Munduko telebista kate ezberdinak ikusteko aukera eskaintzen dituen zerbitzuak, berriz, 3.791 erabiltzaile hartu ditu.